

LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO V. JARDUNALDIAK (HITZ ELKARKETARI BURUZ 2.AK)

Plentziako Aterpetxean, 1987-I-30/31

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren sarrera-hitzak

Jaun-Andreak:

Bihoa, hasteko, Euskaltzaindiaren eskerrona eta ezagutza Bizkaiko Diputazio txit Gorenari, Jardunaldi hauek egiteko Aterpetxe hau eskaini digulako. Honelako toki baketsu eta bakartiak guztiz aproposak dira gai hauek patxadaz aztertu eta barnatzeko. Oraingoan aurreko Jardunaldiak, oroituko zareten bezala, Beloken egin ziren joan den urteko Ekainean. Hauek ere ez dira izango azkenengoak, seguraski. Gaia, hitz-elkarketa edo konposizioa, berez luzea da eta aitzingibel askoduna. Bere osotasunean inguratzeko, denbora pixka bat eramango digu, nik uste.

Lexiko-berrikuntzari buruzko arazoak gaur Euskaltzaindiari ardura gehien ematen diotenetakoak dira, zalantza gabe. Eta arrazoia garbi dago. Gaur euskarari supituki aurkeztu zaizkio orain arte egundaino izan ez dituen bezalako aukerak. Orain arte harentzat debeku ziren esparruak zabaldu zaizkio, alegia. Eta euskarak egoera berri honi aurpegi eman behar dio. Adibidez, irakaskuntza, administrazioa, liturgia, ofizialtasun mailatako lanak, hitz batean esateko, hainbeste sail eta eremu, orain arte euskarak gorritu gabe zeuzkanak, orain nahi eta nahi ez landu behar ditu.

Beste hitzez esateko, euskarak kultur-hizkuntza bilakatu behar du. Honekin ez dugu esan nahi orain arte ere euskara neurri batean kultur-adierazgailu izan ez denik, baina orain neurri askoz handiagoan izan beharko du.

Eta, jakina, oztopoa berehalakoan irteten zaigu bidera, hots, hitzen eskasia. Gu murgildurik bizi garen Etzinalde honetako kulturaren badira hainbeste izaki eta gauzaki —materiazko edo izpirituzko, batez ere izpirituzko—, zeinentzat euskaraz ezpaitago izenik, izen zehatzik behintzat, arazo horiek beti erdaretan, eta ez euskaraz, adierazten zirelako. Orain,

jakina, gauza horiek adierazteko eta izendatzeko, hitzak bilatu behar ditugu.

Eta bana-banaka hitzen bila hasi baino lehen, eta langintza hau batasun baten barnean egin ahal dadin, bada zeregin bat bere eitez eta izanez lehenago egin beharrekoa dena, nahiz eta gauza hauetan kronologia eta logika ez diren beti akort izaten. Zeregin hori da eritzia batera-zea eta finkatzea. Horretarako dago, hain zuzen, Lexiko-Erizpideen Finkapenerako talde edo saila, Euskaltzaindiko Hiztegi-Batzordearen barnean lanean ari dena. Zein da, zehazki, sail edo talde honen xedea? Lexiko-berrikuntza lan hori taxuz egin dadin, behar diren oinarriak ezartzea, erizpideak argitzea eta finkatzea, eta honela, gero Euskaltzaindiak, hala baderitza, ager ditzakeen arau gidarientzat, bidea prestatzea, aurre-lana egitea.

Zenbaitek uste du Euskaltzaindiak ez duela arazo honetan eskuak zer sarturik. Hau ez litzateke Euskaltzaindiaren lana izango. Hori frogatzeko, aipatzen dituzte ez dakit nongo exenpluak, besteek lan hori nola burutu duten ikas dezagun. Nik ez dut esaten besterengandik ikasi behar ez dugunik. Baina lan honetan Euskaltzaindiak zereginen bat baduela jakiteko, aski zait gure Arautegiak zer dioen irakurtzea. Gure Arautegiak, bada, bere lehen artikuluan Euskaltzaindiaren xedeak zein diren bana-banaka xehatzen ditu, eta horien artean bat, "g" letran datorrena, honako hau da: "Hizkuntza, gizarte-maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea".

Eta hauxe da, hain zuzen, hemen darabilgun arazoa.

Horrek ez du esan nahi, bestalde, Euskaltzaindiak zama hau berak bakarrik eta xoilki hartu behar duenik edo dezakeenik. Ez, inolaz ere. Izugarri zabalak dira kulturaren bazterrak, eta begien bistan da berak bakarrik ezin ditzakeela horiek denak arakatu eta kultur izaki guztientzat izenak aurkitu. Hau guztion lana da, eta denok parte haturik ere, nahikoa lan eta denbora eskatuko diguna.

Baina langintza honetan bada zerbait berari, Euskaltzaindiari, eta berari bakarrik, dagokiona. Horra zein: Lan honen nolabaiteko gidaritza hartzea, eritzia finkatuz, oinarriak ezarriz eta arau gidari batzuk emanez, dena batasun baten barnean egin dadin. Eta horretan dihardu Euskaltzaindiak.

Beraz, hau da kontua: kultur-eremuko hitz askoren beharrean dela euskara, eta behar horri erremedio bilatu behar zaiola. Orain bada, gure hizkuntza hau hitz berriz aberasteko, badira hiru bide: 1. Maileguena. 2. Konposizio edo hitz elkarketarena, eta 3. Deribazio edo Eratorpenarena. Hiru bide horietarik euskarari ez zaio batño ere galerazi behar, denen beharrean da eta.

Hiru urtez aritu izan da Euskaltzaindia lehenbiziko bideari buruz azterketa eta jardunaldiak egiten eta azkenean bide horri dagozkion arauak eman ditu. Klean da jadanik arauok dakartzan liburuxka: *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*. Honekin, eta oraingoz, hitz berriak mailegu-bidez sortzeko behar ziren arauak eskaintzen ditu Euskaltzaindiak eta honela bere zeregina bete du.

* * *

Orain beste bi bideei aurpegi eman behar die, hots, konposizio eta deribazioari. Bi bide hauek, nolabait esateko, autoktonoak ditugu, hots, euskarak bere erraietarik eta bere gaiak baliatuz, hitzak sortzeko dituen ahalbideak dira.

Zenbatetarainokoa izango ote da bi bide autoktono hauek —konposizioak eta deribazioak— euskararen hitzen eskasia erremediatzeko eman dezaketen laguntza? Nik ez dakit. Batzuek, beharbada, bide hauen garrantzia gutiesten dute eta beste batzuek sobera esten. Americo Castrok Bilbon 1920an egindako hitzaldi batean zioena gogoratu besterik ez dut egingo. Kulturak behar dituen hitz guztiak prozedura hauen bidez sortzeari hara zer zeritzon: Hori da —zioen— Nerbioi ibaiaren ur guztia hiruzpalau pitxerretan sartu nahi izatea bezala (Ikus “El elemento extraño en el lenguaje” in *Curso de Lingüística*, Eusko Ikaskuntza, 1921; p. 59). Honekin esan nahi du, noski, behar direnen aldean beti izango direla guti prozedura horien bidez sor daitezkeen hitzak.

Dena den, asko edo guti, euskarak bide horiek bere-bereak ditu, eta baliatu behar ditu.

Beraz, bigarren bidea, konposizio edo hitz-elkarketarena dugu orain aztergai. Egia esan, oraindik atarian gara, aurrenengo fasean, azterketak egiteko fasean. Iaz lantaldea izendatu zen, Mikel Zalbide eta Miren Azkareteren gidaritzapean. Eskerrak eman nahi dizkiet biei lan hau bultzatzen ipintzen duten gar eta lehiagatik.

Dakizuenez, joan den urteko Ekainean, eta Beloken, lehenbiziko Jardunaldiak egin ziren. Bildutako materialearen aurkezpena izan zen hura eta materiale horren nolabaiteko sailkapena ere bai. Belokeko bilkurorok gai guztiari osoko gainbegiratu bat emateko guztiz egokiak gertatu ziren.

Orain, bigarren bilkurotan xeheki eta zehazki aztertu nahi dira euskal konposizio-mota partikular batzuk, beste batzuk hurrengorako utziz, zeren gaia berez luzea baita.

Honekin bukatzen dut. Lantaldearen zuzendariak emango dituzte gainerako xehetasunak. Nik eskerrak eman nahi dizkiet berei eta langile eta lankide guztiei, eta ongi etorria, noski, guztioi.

Euskal konposizioaren gai hau ederra da eta maitagarria, guztiz ere beronen sekretuez jabetzen garenean. Uste dut, gainera, ongi edo behar bezala erabilia, txit emankorra eta baliotsua izan daitekeela euskarak dituen beharrianak gainditzen laguntzeko.